



Gauka IROZ

Urtetik urtera gora egin du Sagardo Egunean parte hartzen dutenen kopuruak.

Sagardogileek harremanak sendotzeko ekimena, abian

► Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroa Behereko ekoizleen topaketa 22an

Lapurdik, Nafarroa Behereko eta Gipuzkoako sagardo ekoizleek beren arteko harremanak estutzeko aukera izango dute larunbatean. Izaera ludiko eta soziala izango duen

topaketa bigarren ez ingo da aurten, Baionako Sagardo Egunaren ospakizunaren inguruan eta Hiruki elkartearen eta Sagardun partzuergoaren elkarlanari esker.

GARA

BAIONA

Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko sagardo ekoizleek elkar ezagutzeko eta harremanak estutzeko aukera izango dute larunbatean, bigarren ez ingo dute dituzten topaketetan.

Izaera ludiko eta soziala izango duen ekimena Hiruki-Baionako Ikastolak, gau eskolak eta Gure Irratia biltzen dituen elkarteak eta Sagardun-Astigarra inguruan sagardo sektorearekin zerikusia duten ekitaldi sozio-kulturalak sustatzeko eratutako partzuergo-elkarteen elkarlanaren emaitza izango da eta Bidasoa ibaiaren bi aldetako sagardo ekoizleek beren eguneroko jardunean izan ditzaketen arazo eta aukerak komunean jartzeko balio ez

ezik lan egiteko modu ezberdinei buruzko informazio zuzena jasotzeko bide bat izango da.

Izan ere, askok bestela uste izan arren, sagardoa ez da Gipuzkoako eskualde jakin bateko jabegoa, garai batean Euskal Herri osoa hartzen zuten sagastiak horren lekuko ziren.

Hedatuta

Gaur egun, Gipuzkoako Sagarro partzuergoaren inguruan biltzen diren ekoizleen sagardotegiak oraindik ere entzute handia izaten jarraitzen badute ere, Euskal Herriko beste hainbat lekutan sagardoaren kultura hedatuta dagoela frogatu daiteke. Han eta hemen ospatu ohi diren sagardo egunak nahiz eskualde ezberdinetan kokatutako sagardotegiak izan daitezke horren lekuko.

Lapurdi eta Nafarroa Behereari dagokionez, hainbat mende daramate sagardoa ekoizten eta Baiona Txikiko karrikak hainbat sagardotegiren topagune izan dira.

Edonola ere, eskualde bakoitzak bere berezitasunak dituelako, larunbateko topaketek errealitate ezberdin horiek ezagutzeko parada emango dute giro ez formalean. Bilduko diren sagardo ekoizleek goizean gazta enpresa baten errealitatea ezagutu eta gero, Heletako Artzaintzaren museo berrira osteratxoa egingo dute, Baionan aurten ateak zabaldu dituen azken sagardotegian bazkaldu baino lehen.

Ekoizle guztiek arratsaldean Baionan 7. urtez jarraian izango den sagardo egunean parte hartuko dute.

Sagardoarekin hitzordua berriz Baionan

GARA

BAIONA

Beste behin, maiatzaren hirugarren asteburuan sagardoazaleek Baionan izango dute hitzordua. Larunbatean, arratsaldeko seietatik aurrera, Espainiako Atea izeneko plazan Baionako Sagardo Egunaren zazpigarren edizioa hasi-

ko da eta bertaratuko diren guztiek Euskal Herriko eskualde ezberdinetako 25 ekoizleren sagardoaren artean gustukoena aukeratu ahal izango dute.

Parte-hartzea

Sagardoaren kultura zabaldu ez ezik, euskal kulturaren bilgune eta tokiko ekono-

miaren sustatzaile ere izan nahi du ekimenak, eta azken urteetan izan duen parte-hartzea ikusirik helburuok betetzen direla esan daiteke. Iazko edizioan antolatzaileek 4.000 pertsona inguruk parte hartu zuela adierazi zuten. Kopuruak urtetik urtera nabarmen egin du gora.

Sagardogileen eta Baionako elkartearen arteko harremanak estutzeko ekimen garrantzitsua ere izan nahi du Sagardo Egunak, izan ere, Lapurdiko hiriburuko 25 elkarte arduratuko dira festaz gozatzeraz joango direnek dastatuko dituzten jatekoak prestatu eta edatekoak zerbitzeaz.